

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2021eko abendua

Hotel-establezimenduak 2021ean suspertu dira 2020. urtearen aldean, baina ez dira iritsi Euskal AEn 2019an izaniko okupazio-kopurueta

2021eko abenduan, sarrerak eta gaualdiak hirukoiztu egin dira urte arteko terminoetan, eta 2019ko abenduko sarreraren % 87,1 eta gauldien % 87,7 izan dira

2021eko balantzean, COVID-19aren pandemiak markaturiko bigarren urtean, nahiz eta Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarreretan % 75,5eko eta gauldietan % 73,4ko igoera erregistratu den 2020. urtearekin alderatuta, ez dira berreskuratu 2019an lorturiko kopuruak, Eustatek landutako datuen arabera.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia. 2021

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2021	p/p-1 (%)	2021	p/p-1 (%)	2021	2020
EUSKAL AE	2.172.927	75,5	4.178.716	73,4	1,92	1,95
Estatukoak	1.536.502	75,4	2.996.608	73,6	1,95	1,97
Atzeritarrak	636.425	75,9	1.182.108	72,9	1,86	1,89
Araba/Álava	315.601	83,1	610.063	80,3	1,93	1,96
Estatukoak	251.408	82,1	494.833	79,9	1,97	1,99
Atzeritarrak	64.193	87,3	115.230	81,8	1,80	1,85
Vitoria-Gasteiz	228.943	88,4	460.741	83,2	2,01	2,07
Bizkaia	952.191	80,6	1.831.983	75,1	1,92	1,99
Estatukoak	696.365	79,2	1.343.825	74,3	1,93	1,98
Atzeritarrak	255.826	84,8	488.158	77,3	1,91	1,99
Bilbao	631.481	80,6	1.191.971	81,5	1,89	1,88
Gipuzkoa	905.135	68,0	1.736.670	69,4	1,92	1,90
Estatukoak	588.729	68,5	1.157.950	70,3	1,97	1,95
Atzeritarrak	316.406	67,2	578.720	67,7	1,83	1,82
Donostia / San Sebastian	553.626	74,5	1.074.157	80,7	1,94	1,87

p/p-1 Azken aldian izandako urte arteko aldakuntza-tasa (p), aurreko urteko aldi berarekin alderatuta (p-1)

Data 2022ko Urtarrilaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2021. urtean zehar, Euskal AEko hotel-establezimenduetan 2.172.927 sarrera erregistratu dira, eta 4.178.716 gaualdi guztira. Kopuru horiek, hain zuzen, 2019an izandako sarreraren % 87,1 eta gauldien % 87,7 iristen dira.

2020. urteari dagokionez, ordea, bi aldagaien hazkundera esanguratsua izan da, eta hazkunde-tasak % 75 ingurukoak izan dira Euskal AEn. Lurraldeka, hazkundeak orokorrak izan dira. Araban % 83,1 eta % 80,3 gehitu dira sarrerak eta gaualdiak, hurrenez hurren; Bizkaian % 80,6 eta % 75,1, hurrenez hurren; Gipuzkoan % 68,0 hazi dira sarrerak eta % 69,4 gaualdiak.

Hiriburuek antzeko bilakaera izan dute: 2021ean, 2020aren aldean, % 88,4 igo dira sarrerak Gasteizen, % 80,6 Bilbon eta % 74,5 Donostian, eta gualdiak % 83,2, % 81,5 eta % 80,7, hurrenez hurren.

2021eko batez besteko egonaldia, Euskal AEn, 1,92 egunekoa izan da, 2020an erregistratutako 1,95 egunekoa baino pixka bat txikiagoa, eta halaber 2019ko 1,97 egunekoa baino txikiagoa.

Lurraldeei dagokienez, batez besteko egonaldian lortutako balioak ere 1,92 egunekoak izan dira, Araban izan ezik, non balio hori hamarren batean gaintitu den, eta 1,93 egunekoa izan da 2021. urte osorako.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2021

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2021	p.p. *	2021	p.p. *	2021	p/p-1 (%)	2021	p/p-1 (%)
EUSKAL AE	41,1	8,3	48,8	7,8	89,44	21,9	43,66	45,0
Araba/Álava	40,5	8,6	50,8	9,0	76,19	24,4	38,72	51,1
Vitoria-Gasteiz	40,7	8,2	53,2	8,4	66,20	19,3	35,19	41,6
Bizkaia	38,4	7,9	46,4	6,9	78,56	17,4	36,49	37,9
Bilbao	39,9	8,5	46,8	7,1	83,60	18,0	39,16	39,1
Gipuzkoa	44,5	8,7	51,0	8,5	106,47	25,2	54,27	50,2
Donostia / San Sebastian	48,9	10,2	54,1	10,3	128,44	26,4	69,46	56,1

p/p-1 Azken aldian izandako urte arteko aldakuntza-tasa (p), aurreko urteko aldi berarekin alderatuta (p-1)

p.p.*= aurreko urteko portzentajeazko puntuko aldea

Data 2022ko Urtarrilaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko hotel-establezimenduetako plazen okupazio-maila % 41,1ekoa izan da 2021ean, eta logelen okupazio-maila % 48,8koa; beraz, ehuneko 8,3 eta 7,8 puntuko igoera gertatu da 2020. urtearekin alderatuta, hurrenez hurren.

Gipuzkoan, plazen okupazio-maila % 44,5ekoa izan da urte osoan; Araban, % 40,5ekoa; eta Bizkaian, % 38,4koa. Hiriburuen balioak dagozkien lurraldeetakoak baino pixka bat handiagoak izan dira.

Logelen okupazio-maila, bestalde, % 51,0 izan da Gipuzkoan, % 50,8 Araban eta, azkenik, % 46,4 Bizkaian. Hiriburuei dagokienez, Donostian logelen okupazio-maila % 54,1ekoa izan da, Gasteizen % 53,2koa eta Bilbon % 46,8koa.

Errentagarritasun-adierazleak hobetu egin dira 2021. urtean zehar, aurreko urtean ikusitakoen aldean. Euskal AEko ADR edo eguneko batez besteko tarifa, urteko % 21,9ko igoeraren ondoren, 89,44 eurokoa izan da. RevPar delakoaren kasuan, 2021eko balioa 43,66 eurokoa izan da, hau da, % 45,0 igo da 2020arekiko.

2021eko abendua

2021eko abenduan, 181.836 sarrera eta 336.886 gaualdi erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan.

2020ko abenduarekin alderatuta, hotel-sektorearen suspertzea % 221,6koa izan da sarreraren kasuan, eta % 239,0koa gaualdienean. Halarik ere, 2021eko abenduko sarrerak 2019ko abendukoaren % 87,1 dira, eta gaualdiak % 87,7.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia. Abendua 2021

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2021/12	m/m-12 (%)	2021/12	m/m-12 (%)	2021/12	2020/12
EUSKAL AE	181.836	221,6	336.886	239,0	1,85	1,76
Estatukoak	131.545	183,9	245.313	202,6	1,86	1,75
Atzerritarrak	50.291	393,3	91.573	400,0	1,82	1,80
Araba/Álava	27.177	220,9	52.209	204,6	1,92	2,02
Estatukoak	22.532	233,6	43.445	208,9	1,93	2,08
Atzerritarrak	4.645	171,2	8.764	184,9	1,89	1,80
Vitoria-Gasteiz	21.384	183,2	42.696	176,9	2,00	2,04
Bizkaia	83.654	196,3	157.303	219,0	1,88	1,75
Estatukoak	64.741	157,2	119.891	180,0	1,85	1,70
Atzerritarrak	18.913	518,3	37.412	475,3	1,98	2,13
Bilbao	58.978	188,0	110.073	236,5	1,87	1,60
Gipuzkoa	71.005	257,9	127.374	286,8	1,79	1,66
Estatukoak	44.272	207,1	81.977	238,8	1,85	1,68
Atzerritarrak	26.733	393,0	45.397	419,7	1,70	1,61
Donostia / San Sebastian	48.974	314,4	87.342	381,4	1,78	1,54

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Urtarrilaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Araban 27.177 sarrera eta 52.209 gaualdi izan dira abenduan, aurreko urteko hilabete berean baino % 220,9 eta % 204,6 gehiago, hurrenez hurren. Bizkaian, 2021eko abenduan, sarrerak % 196,3 igo dira, eta gaualdiak % 219,0. Guztira, 83.654 sarrera eta 157.303 gaualdi izan dira. Azkenik, Gipuzkoan, 2021eko abenduan, 71.005 sarrera eta 127.374 gaualdi izan dira; urte arteko igoera % 257,9koa izan da sarreretan eta % 286,8koa gaualdietan. Euskal AE osoan, atzerriko jatorriko sarrera eta gaualdien kopuruak gora egin du nabarmen, 2020ko abenduko balioak ia boskoiztu egin baitira.

Euskal AE osotara harturik, 2021eko abenduko batez besteko egonaldia 1,85 egunekoa izan da, hau da, 2020ko hilabete berean lortutakoa (1,76 egun) baino luzeagoa. 2019ko abenduan, aldagai hori 1,84 egunekoa izan zen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Abendua 2021

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2021/12	p.p. *	2021/12	p.p. *	2021/12	m/m-12 (%)	2021/12	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	36,2	20,5	42,6	21,3	75,62	21,4	32,23	142,0
Araba/Álava	38,5	20,6	48,4	22,2	69,24	20,5	33,50	123,0
Vitoria-Gasteiz	40,5	20,4	52,7	23,0	60,18	4,4	31,71	85,3
Bizkaia	36,0	20,2	43,2	21,8	73,47	23,0	31,75	147,5
Bilbao	38,6	21,9	44,9	22,9	78,37	26,1	35,22	157,6
Gipuzkoa	35,6	21,1	39,8	20,6	81,21	17,8	32,36	143,5
Donostia / San Sebastian	40,1	24,9	43,2	23,6	91,66	12,5	39,61	147,3

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteaz izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Urtarrilaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2021eko abenduko okupazio-mailei dagokienez, Euskal AE osoan % 36,2ra iritsi da plazen arabera neurtzean, eta % 42,6ra logelen arabera neurtzean. 2020ko abenduarekin alderatuta, igoerak portzentajeazko 20,5 eta 21,2 puntukoak dira, hurrenez hurren. 2019ko abenduarekin alderatuta, aldiz, zifra horiek portzentajeazko 7,9 puntu beherago daude plazen okupazio-mailaren kasuan, eta 9,5 puntu beherago logelara neurturik.

Errentagarritasuna, ADRren edo eguneko batez besteko tarifaren bidez neurtuta, 75,62 eurora iritsi da Euskal AE osoan, 2021eko abenduan. Lurraldeei dagokienez, Gipuzkoa nabarmentzen da 81,21 euroekin, ondoren Bizkaia 73,47 euroekin eta, azkenik, Araba 69,24 euroekin. Hiriburuetan, ADR 91,66 eurokoa da Donostian, 78,37 eurokoa Bilbon eta 60,18 eurokoa Gasteizen. Zifra horiek guztiek urte arteko hazkunde esanguratsuak dakartzate: % 26,1 Bilbon, % 12,5 Donostian eta % 4,4 Gasteizen. 2019ko abenduan, Euskal AE osorako ADR 76,79 eurora iritsi zen, hau da, 2021eko abendukoa baino 1,17 euro gehiago.

Azkenik, Euskal AEko RevPar 32,23 eurokoa izan da 2021eko abenduan, 18,91 euro handiagoa 2020ko abenduan erregistraturikoa baino. Araban 33,50 eurora iritsi da, Gipuzkoan 32,36 eurora eta Bizkaian 31,75 eurora. 2020ko hilabete berarekin alderatuta, igoera adierazgarriak izan dira: % 147,5 Bizkaian, % 143,5 Gipuzkoan eta % 123,0 Araban.

Informazio-oharra. Hotelen abenduko ETHIren estaldura % **81,0koa** izan da. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei eginiko ahaleginagatik.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62